

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Txaro Arteaga Ansa

*Donostia,
Gipuzkoa
(1944)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaioa, Hondarribia kalean. Ama Aranokoa zuen jatorriz, umetan Donostiara joandakoa bizitzera: Rich okindegian egiten zuen lan. Aita Tolosakoa zen eta Iberdueroko langilea zen. Teresianekin oinarritzko ikasketak egin, eta Idazkaritza ikasi zuen Txarok. Ondoren Parisera joan zen frantsesa ikastera, 18 urterekin. Segidan Erresuma Batura joateko asmoa zuen, baina ama hil zitzaion, eta Donostian geratu zen. Herri Irratian lanean hasteko aukera izan zuen orduan, eta urte askoan ibili zen irratigintzan. Mugimendu feministan ere murgildu zen, eta Emakunde sortu zenean, 1988an, bertako zuzendaria izan zen hainbat urtez. Erretiroa hartu aurreko azken urteak irratigintzan eman zituen. San Telmo museoan egindako elkarrizketa.

Zintak

DON-201

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-04-22
- **Iraupena:** 132 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Teresianekin hasieran, Parisen gero

- **Erref:** DON-201/013
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:21:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Teresianas mojekin egin zituen ikasketak, batxilergoa barne. Idazkaritza ikasi zuen eta pare bat urtez bulego batean lan egin zuen. Parisera joan zen urtebetez, frantsesa ikastera.

2. "Radio Popular de San Sebastian" irratian hasi zenekoa

- **Erref:** DON-201/014
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:21:23. **Bukatu:** 00:24:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Ama bat-batean hil zen, eta etxean gauzak zeharo aldatu ziren. Lanean hasi beharra sentitu zuen. Orduko "Radio Popular de San Sebastián" irratian proba bat gaindituta, esatari hasi zen. Ez zeukan asmorik eta jakintzarik, baina animatu zen. Gotzaindegiko irratia zen, eta zuzendaria apaiz bat zen.

3. "Radio Popular de San Sebastián" irratia euskalduntzen

- **Erref:** DON-201/015
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:24:17. **Bukatu:** 00:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

"Radio Popular de San Sebastián" irratiiko zuzendaria bota egin zuten. Orduan, Maitek Iñaki Gabilondo gomendatu zuen eta bera geratu zen zuzendari. Irratia euskalduntzen saiatu ziren. Orduan sartu ziren kazetariak aipatzen ditu. Tokiko informazioa ematen hasi ziren, aurretik Madriletik zetorren parte eman behar izaten baitzuten.

4. "Radio Popular de San Sebastián" jesuiten esku

- **Erref:** DON-201/016
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

"Radio Popular de San Sebastián" irratia salgai zegoela jakin zutenean, Loiola Irratira joan ziren Lekuonarengana, jesuitek eros zezaten proposatzera. Bat egin zuten bi irratiak eta euskalduntze prozesua egin zuten. Bertako informazioa lantzen hasi ziren.

5. Herriari ahotsa ematea

- **Erref:** DON-201/017
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:30:05. **Bukatu:** 00:31:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irratian hogeita bost urte inguru egin zituen lanean. Bokaziorik gabe sartu bazen ere, herriari ahotsa ematea oso gustuko izan zuen. Liskarrak sortu ziren irratia Madriletik bereizi nahi zutelako. Manifestazioa ere egin zuten.

6. Izeba indartsuak eta etxetik kanpo lan egiten zutenak

- **Erref:** DON-201/019
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:33:39. **Bukatu:** 00:34:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Irratian hasi zenean, ez zekien feminismoa existitzen zenik ere. Bere amaren bost ahizpak oso indartsuak eta jatorrak ziren, eta denek etxetik kanpo lan egiten zuten.

7. Amona alargunaren bizimodua

- **Erref:** DON-201/020
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:34:59. **Bukatu:** 00:38:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren aldeko amona alargun geratu zen, sei alaba eta semearekin. Baserrian ezin izan zuen geratu eta seme-alabak etxe askotara banatu zituen. Alaba batekin Donostiara joan zen lanera eta handik denbora batera denak elkartu ziren. Amak eta bere ahizpek okindegian lan egiten zuten. Ahizpen artean, ama hiltzen lehenengoa izan zen.

8. Teresianak oso irekiak, ama ere bai

- **Erref:** DON-201/023
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Teresianetan ikasi zuenean, "Las Vespas" esaten zieten, uniforme oso berezia zeukatelako. Mojak oso irekiak ziren eta lanerako prestatzen zituzten. Bere amak ikasketak egin zituen. Ama irekia, oso argia eta alaia zela kontatzen du.

9. Etxeko neskameak

- **Erref:** DON-201/024
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:44:21. **Bukatu:** 00:45:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame bat izan zuten etxean eta hura Parisera joan eta bertan ezkondu zen. Haren etxera joan zen Maite. Maria Luisa Juaristi zen, Atanoren iloba.

10. Etxean euskaraz, kalean batere ez

- **Erref:** DON-201/025
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:45:39. **Bukatu:** 00:46:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Etxean euskaraz egiten zuten. Amak beti esaten zien "euskaraz egin!". "Habla en cristiano" berari esan zioten. Donostian kalean ez zen euskararik entzuten.

11. Euskara baserritarrena

- **Erref:** DON-201/026
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:46:26. **Bukatu:** 00:47:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irratian hasi zenean, hilean behin euskarazko saioa egiten zuten baserritarrentzat, hiru lagunen artean: Maria Angeles Arregi, Luis Mari Bereziartua eta beste bat ziren esatariak.

12. Eskainitako diskoak euskaraz

- **Erref:** DON-201/027
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:47:27. **Bukatu:** 00:48:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Iñaki Zubizarretak "eskeinitako diskoak" saioa egiten zuen euskaraz. Maitek euskaraz alfabetatzeko klaseak hartu zituen. Oso irakasle onak izan zituela kontatzen du.

13. Jazzaldian aurkezle, euskaraz eta erdaraz

- **Erref:** DON-201/029
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:49:27. **Bukatu:** 00:51:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Rafael Agirre Francok jazzaldia aurkezteko deitu zion. Trinitate plazan egiten zen eta Madriletik etortzen ziren aurkezpena egitera. Aurkezteko berak jartzen zuen baldintza euskaraz eta erdaraz egin ahal izatea izaten zen. "Gabon" esan zuenean, erabateko isiltasuna egin zen. Hamaika urtez aurkeztu zuen.

14. Euskarari lekua egiteko borrokan

- **Erref:** DON-201/030
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:51:37. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Zinemaldian euskaraz egiten hasi ziren. Pixkanaka aurkezpenetan euskara sartzen hasi ziren, baina zaila zela dio. Orain edozein lekutan eta eremutan euskaraz elkarriketatu ahal izateko jendea aurkitu daitekeela dio. Borroka handia egin zuten beren garaian, euskarari leku emateko. Urte oso aberatsak izan zirela dio, herriarentzat eta norbanakoentzat.

15. 70eko hamarkadako mugimendu feministari ahotsa

- **Erref:** DON-201/031
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Taldetxo batzuk hasita zeuden Donostian, talde feminista batzuk. Irratirako elkarriketatu zituen. 1975ean Konferentzia Mundialaren oihartzunak iritsi

ziren, gutxi bada ere. "Independienteak" izeneko taldearekin harremana izan zuen. Beste talde batzuk alderdi politikoetan txertatuta zeuden, eta horrek borroka sortzen zuen haien artean. Bilbon jardunaldiak egin zirenean, irratiaren informazioa emateko joan zen. Hor hasi zen feminismoaren berri izaten.

16. "Emakumearen euskal erakundea"ren sorrera

- **Erref:** DON-201/032
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:58:10. **Bukatu:** 01:02:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Parlamentuan zeuden emakumeek erakunde bat sortu nahi zuten eta talde feministek ere bai. Zarautzen bilerak egin zituzten. Emakunde sortzeko lehenengo urratsa izan zen. 1975eko Mexikoko Mundu Konferentzian mundu mailako lana egin behar zela erabaki zuten. 1985ean Nairobin egin zen bigarren Mundu Konferentzian datuak aztertuz argi geratu zen estatuek ardura hartu behar zutela. Emakumeen aldeko borroka instituzionalizatu egin zen. Horren harira eskaera egin eta asko kostata, "Emakumearen euskal erakundea" sortu zuten.

17. Emakunde izenaren sorrera

- **Erref:** DON-201/033
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:02:24. **Bukatu:** 01:03:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakunde izena nola sortu zuten azaltzen du.

18. Talde eta forum feministak eta irratiko lana

- **Erref:** DON-201/034
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:03:44. **Bukatu:** 01:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lehenengo "Independienteak" talde feministan ibili zen eta ondoren Maria de Maeztuko forum feministan. Elkarrizketa asko egiten zituen gaiari buruz eta lehiaketa bat ere antolatu zuen.

19. Elkarrizketatuengandik ikasten

- **Erref:** DON-201/036
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:06:47. **Bukatu:** 01:09:38

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Sindikalista ere bazen eta ELAn zegoen. Bizitzan ikasitakoa toki askotatik etorri zaiola azaltzen du, eta irakasle oso onak izan dituela. Severo Otxoa elkarriketatu zueneko kontakatu du. Elkarriketen bitartez asko ikasi duela azaltzen du. Komunikabideetan lan egiteak gauza askotaz gutxi jakitea ahalbidetzen duela dio.

20. Feminismoa, munduan kokatzeko

- **Erref:** DON-201/037
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:09:38. **Bukatu:** 01:10:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Irratiak eta feminismoak asko eman diotela azaltzen du. Feminismoak munduan kokatzen lagundu diola dio.

21. Borroka feminista guztiak beharrezko

- **Erref:** DON-201/038
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 01:10:32. **Bukatu:** 01:14:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Iparraldeko feministekin ez zeukaten harremanik. Emakundera joan zenean, eztabaida sortu zen, eta iraun du, borroka kanpotik ala barrutik egin behar den. Edozein politikak beharko luke ikuspegi feminista izan.

22. Asimilatuta baina borrokan

- **Erref:** DON-201/041
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:20:22. **Bukatu:** 01:22:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Herri moduan asimilatuta gaudela dio, eta feminismoarekin berdin. Hala ere, borroka egin behar dela dio.

23. Feministak gaizki ikusita

- **Erref:** DON-201/043
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:23:49. **Bukatu:** 01:26:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lehen feministak itsusiak, frustratuak, gizonek kasurik egiten ez zietenak... zirela esaten zieten. Oraindik ere esan izan diote. Ezjakintasuna dela dio.

24. Maitasun erromantikoaren mitoa

- **Erref:** DON-201/045
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:27:23. **Bukatu:** 01:29:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lehen ezkontzen ziren interesarengatik. Erromantikoek lortu zuten emazteak senarren zerbitzari izan zitezen, inongo ordainik gabe, eta sinetsaraziz emazteek egin nahi zutena hori zela. Maitasunaren izenean esklabo bihurtzea; Asisko Urmenetaren "Esklabo alaiak" liburua aipatzen du.

25. Erakundeetatik feminismoaren alde egitea beharrezko

- **Erref:** DON-201/047
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:31:42. **Bukatu:** 01:33:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Borroka feminista erakundeetara eramatea oso garrantzitsua izan dela dio, baita legeak egitea ere. Egitura bat sortzerakoan, prestatutako jendea behar da. Unibertsitatean master bat sortu zuten, lanpostu horietarako. Oraindik hasieran gaudela dio.

26. Berdintasunetik urrun

- **Erref:** DON-201/048
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:33:54. **Bukatu:** 01:37:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeek lan bikoitza dutela dio: etxekoa eta kanpokoa. Hamarretik hiru gizonezko bakarrik esaten dute bikotearekiko berdintsu lan egiten dutela.

Kontziliazioari buruzko kongresua egin zuten Miramar Jauregian, konturatzeko gizonezkoek eta emakumezkoek bi lanak uztartu behar dituztela.

27. Gizarte patriarkala vs feminismoa

- **Erref:** DON-201/049
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:37:08. **Bukatu:** 01:40:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizartearen egitura patriarkala dela dio, eta feminismoa indartsu egon arren, gizarteak aldaketa egitea zaila dela. Botere-harremanen afera dela dio.

28. Berdintasun legea bai baina bete ez

- **Erref:** DON-201/052
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:45:54. **Bukatu:** 01:49:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Berdintasun legea ez dela bete dio. Jendea prestatu behar dela azaltzen du. Emakume askok egin dute borroka hainbat lege abolitzeko. Ebaluatu egin behar da etenik gabe, zer betetzen den eta zer ez.

29. Politikariengan ezjakintasuna

- **Erref:** DON-201/053
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:49:23. **Bukatu:** 01:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Erakundeetan alderdiak bata bestearen kontra ari direla dio, gizarteari tresnak emateaz arduratu beharrean. Politikariak erabat ezjakinak direla dio.

30. Etxeko lanak denen artean

- **Erref:** DON-201/057
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:56:20. **Bukatu:** 01:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Etxean bi neskame izan zituzten: Maritxu eta Maria Luisa. Neskamerik ez zegoenean dagoeneko, denen artean moldatzen ziren etxeko lanetan. Anekdotak bat kontatzen du.

31. Etxetik kanpora lan, etxetik kanpora bazkaldu

- **Erref:** DON-201/058
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 01:59:45. **Bukatu:** 02:04:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gogoan dauka ama hil zenean, aitarekin eta beste hainbatekin etxetik kanpo bazkaltzen hasi zela, eta urte askoan jarraitu. Orduan ez zen ohikoa.

32. Feminismoa zer den

- **Erref:** DON-201/060
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 02:05:25. **Bukatu:** 02:07:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Feminismoa da emakumeen aldeko pentsamendu politikoa eta filosofikoa. Emakume eta gizonezkoen gain egiteko era desberdinak jarri ditu genero sistemak; beraz, helburua da denon artean egitea gizartean egin beharreko guztia.

33. Emakumeek lan gehien, ondasun gutxien

- **Erref:** DON-201/062
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 02:09:25. **Bukatu:** 02:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mundu osoko datuak kontuan hartuta, emakumeek lanaren %80 egiten dute, eta gainontzekoa gizonezkoek; eta ondasunen kasuan, berriz, %80 gizonezkoek daukate eta gainontzekoa emakumeek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com